# CRISTAU DOTRINA

## *AITA ASTETEK*

## MOLDATUA

M-8678 | R-36293
DTU 18937

# DOCTRINA

# Cristiana

AITA GASPAR ASTETE JESUITAC
ERDERAZ COMPONDUA
IPIÑIZUAN EUZQUERAZ

## D. JUAN DE IRAZUSTA

Erretore Hernialdecoac ceña dan provincia Guipuzcoacoan, eta añaditu cion Encarnacioco eta Eucaristiaco Misterioen esplicacioa: baita ere confesio onaren condicioac eta acto Federo, Esperantzaco eta Caridadecoac.

BIBLIOTECA P. BENEDICTINOS LAZCANO

AVISOA

# PECATARI GUZTIENTZAT ONA

---

Utzi ezazu, pecataria,
len baño len pecatua,
aparta zaite ocasiotic,
ceñean zauden sartua.
Izan diteque gaurco gabean
zure oyean iltzea,
bai eta ere biar baño len
infernuetan sartzea.
Utzi ditzagun bicio oec,
ceñac dauzcaten galduric,
eta escatu barcacioa
Jaungoicoari bertatic.
Liburu onetan esaten dana
sinistu eta obratu,
goza dezagun beti gloria,
an gaitecen descansatu.

---

# DOCTRINA CRISTIANAREN

## SARRERA

—

Cristau fiel guztiac
daude obligatuac
gurutzea adoratzera,
eta debozio izatera;
cergatic Cristoc ari
salbatu guinduan
gure pecatuetatic
ta etsaiaren mendetic.

Argatic zaite jarri
santiguatzera sarri,
baita ere ciñatzera,
iru gurutze eguitera:
becoquian lenena,
aoan bigarrena,
bestea bularretan,
iru lecu oyetan.

Becoquian libratzeagatic
pensamentu gaistoetatic,
aoan libratzeagatic

itz gaistoetatic
bularretan libratzeagatic,
obra ta deseo gaistoetatic,
eguin bada bereala
esaten dezula onela.

Gurutze santuaren señaleagatic gure etsaietatic ✝ libra gaitzatzu gure Jauna ✝ eta Jaungoicoa. Aitaren, ta semearen, ta Espiritu Santuaren icenean, ✝ Amen Jesus.

## PATER NOSTERRA.

Aita gurea, ceruetan zaudena, santificatua izan bedi zure izena, betor gugana zure erreinua, eguin bedi zure borondatea, nola ceruan ala lurrean.

Eman iguzu gure eguneroco oguia eta barca guizquigutzu gure zorrac guc gure zordunai barcatzen diegun becela, eta ez gaitzatzula utzi tentacioan erortzen, baicican libratu gaitzatzu gaitzetic. Amen Jesus.

## AVE MARIA.

Ave Maria, graciaz betea, Jauna da zurequin, bedeincatua cerade zu andre guztien artean, ta bedeincatua da zure sabeleco frutua Jesus.

Santa Maria, Jaungoicoaren Ama, erregutu ezazu gu pecatariaegatic, oraiñ eta gure eriotzaco orduan. Amen Jesus.

## CREDOA.

Nic sinisten det Jaungoico Aita guztiz poderosoa, ceruaren eta lurraren criadoreagan. Eta aren Seme bacar Jesucristo gure Jaunagan, ceña concebitu zan Espiritu Santuaren obraz eta birtutez, jayo zan Maria Birgiñagandic, padecitu zuan Poncio Pilatosen aguintearen azpian, izandu zan crucificatua, illa eta enterratua. Jechi zan infernuetara, pistu zan illen artetic irugarren egunean. Igo zan ceruetara, an dago eseriric Jaungoico Aita guciz poderosoa-

ren alde escuitic. Andic etorrico da biciac ta illac juzgatzera. Nic sinisten det Espiritu Santuagan. Elizá Ama Santa Catolica, santuen comunioa, pecatuen barcacioa, araguiaren resurrecioa eta bicitza seculacoa. Amen.

## SALVEA.

Jaungoicoac salba zaitzala. Erreguiña misericordiaren Ama, bicitza dulzura ta esperantza gurea. Jaungoicoac salba zaitzala. Zure deiez gaude Ebaren ume desterratuac. Zugana gaude suspirioz, sentimetuz eta negarrez negarrezco lecu onetan. Ea bada, gure abogada, itzuli itzatzu gugana zure begui misericordioso oyec: ta destierro onetatic irtetzen geradenean eracutzi eguiguzu Jesus zure zabeleco frutu bedeincatua. ¡Oh clementisima! ¡Oh piadosa! ¡Oh misericordiosa! ¡Oh dulce Virgiña Maria! Erregutu ezazu gugatic, Jaungoicoaren Ama San-

ta, merecí dezagun alcanzatzea Jesucristoren promesac. Amen.

## JAUNGOICOAREN LEGUECO

### MANDAMENTUAC DIRADE AMAR.

Lenengo irurac pertenezitzen zaizca Jaungoicoaren onrari, eta beste zazpirac progimuaren probechuari.

Lenengoa, Jaungoicoa amatzea gauza guztien gañean.

Bigarrena, juramentu ulferric ez eguitea.

Irugarrena, jai egunac santificatzea.

Laugarrena, aita eta ama onratzea.

Bostgarrena, iñor ez iltzea.

Seigarrena, lujuriaco pecaturic ez eguitea.

Zazpigarrena, ez ostutzea.

Zortzigarrena, testimonio falsoric ez jasotzea eta guezurric ez esatea.

Bederatzigarrena, projimoaren emazteric ez descatzea.

Amargarrena, besteren gauzaric ez deseatzea.

Amar mandamentu oec enzerratzen dirade bitan: serbitzea eta amatzea Jaungoicua gauza guzien gañean ta progimoa gure buruac becela.

## ARTICULO FEDECOAC.

### DIRADE AMALAU.

Lenengo zazpirac pertenecitzen zaizca Divinidadeari, eta beste zazpirac gure Jaun Jesucristo Jaungoico eta gizon eguiazcoaren umanidade Santuari.

### DIVINIDADEARI PERTENECITZEN ZAIZCANAC DIRA OEC.

Lenengoa, sinistea Jaungoico guzia poderoso bacar bategan.

Bigarrena, sinistea Aita dala. Irugarrena, sinistea Semea dala. Laugarrena, sinistea Espiritu Santua dala.

Bostgarrena, sinistea Criadorea dala.

Seigarrena, sinistea Salbadorea dala.

Zazpigarrena, sinistea Glorificadorea dala.

UMANIDADE SANTUARI PERTENECITZEN ZAIZCANAC DIRADE OEC.

Lenengoa, sinistea Jesucristo gure Jauna guizona dan partetic concebitu zala Espiritu Santuaren obraz.

Bigarrena, sinistea jayo zala Santa Maria Birgiñagandic, Señora au zala Birgiña, Cristo jayo baño leñ, jayotzean eta jayo ezquero.

Irugarrena, sinistea errecibitu zituala eriotza ta pasioa gu pecatariac salbatzeagatic.

Laugarrena, sinistea jechi zala infernuetara, eta aren etorrera santuari ichedoten zeuden anima justuac libratu zituala.

Bostgarrena, sinistea resucitatu zala illen artetic irugarren egunean.

Seigarrena, sinistea igo zala zeruetara eta dagoala eseriric Jaungoico Aita gu-

ciz poderoscaren alde escuitic.

Zazpigarrena, sinistea etorrico dala biciak eta illac juzgatzera; au da, onai ematera gloria, zeren aren mandamentuac gorde cituen, eta gaistoai pena seculacoa, ceren gorde ez zituen.



# DOCTRINA CRISTIANAREN

## DECLARACIOA.

GALDETZEN ETA ERANTZUTEN DALA.

---

GALDETZEN DET: Cerade Cristaba?

ERANTZUTEN DET: Bai, Jauna, Jaungoicoaren graziaz.

G. Cristabaren izen ori norgandic izandu zenduan?

E. Cristo gure Jaunagandic.

G. Cer esan nai du Cristabac?

E. Cristoren guizona.

G. Cer aditzen dezu Cristoren guizona gatic?

E. Cristoren fedea duan guizona, zeña errecibitu zuan bataiatzean ta da-

gure Jauna eta Jaungoicoa. †

G. Cergatic ciñatzen cerade becoquian?

E. Libratzeagatic Jaungoicoac pentzamentu gaiztoetatic.

G. Cergatic aoan?

E. Libratzeagatic Jaungoicoac itz gaistoetatic.

G. Cergatic bularretan?

E. Libratzeagatic Jaungoicoac obra eta deseo gaistoeetatic.

G. Cer da santiguatzea?

E. Eguitea gurutze bat escuico escuaren beatz biaquin, becoquitic bularretaraño ta sorbalda ezquerrecotic escuicoraño deitzen zaiola Trinidade Santisimoari.

G. Eguin ezazu nola?

E. Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean. † Amen Jesus.

G. Noiz eguin bear dezu zeñale au?

E. Obra onen bat asitzen dan guztian, edo arquitzen naicenean necesidade-

tentacio edo peligroren batean; principalmente oetic jaiquitzean, echetic irtetzean, elizan sartzean, jateracoan eta lo eguiteracoan.

G. Cergatic orrenbeste bider?

E. Cergatic denbora eta lecu guzietan gure etsaiac perseguitzen gaituen.

G. Cer etsai dira oriec?

E. Mundua, Demonioa eta Araguia.

G. Esan eguidazu bada Gurutzeac badu birtutea etsai orien contra?

E. Bai Jauna.

G. Nundic izan zuan gurutzeac birtute ori?

E. Benzitzeagatic Cristoc gurutzean etsai oiec bere eriotzarequin.

G. Gurutzea adoratzen dezunean zer esaten dezu?

E. Adoratzen eta bedeincatzen zaitut Cristo, cergatic zure gurutze santuarequin redimitu cenduen mundua.

# DOCTRINA CRISTIANAREN PARTICIOA.

Icusi det, Cristaba cerala cristabaren icenagatic eta señaleagatic:

Esan eguidazu orain.

G. Cenbat gauza jaquin bear ditu cristabat uso arraizoizcoa izatera allegatzen danean?

E. Lau gauza.

G. Cein dirade?

E. Jaquitea cer sinistu bear duan, cer oracio eguin bear duan, cer obratu bear duan, eta cer errecibitu bear duan.

G. Nola jaquingo du zer sinistu bear duan?

E. Jaquiñarequin credoa eta articulo fedecoac.

G. Nola jaquingo du cer oracio eguin bear duan?

E. Jaquiñarequiñ Pater nosterra ta elizaco beste oracioac.

G. Nola jaquingo du cer obratu bear duan?

E. Jaquiñarequin Jaungoicoaren legueco mandamentuac, Eliza Ama Santarenac eta obra misericordiazcoac.

G. Nola jaquingo du cer errecibitu bear duan?

E. Jaquiñarequin Eliza Ama Santaren Sacramentuac.

## DOCTRINA CRISTANAREN

### LENENGO PARTEA CEÑEAN DECLARATZEN DIRADEN CREDUA ETA ARTICULOAC.

G. Nore esan zuen Credoa?

E. Apostoluac.

G. Certaco?

E. Guri Fede santuco gauzac eracusteco.

G. Ta zuc certaco esaten dezu?

E. Cristabac degun fede au confesatzeco.

G. Cer gauza da fedea?

E. Icusi ez deguna sinistea.

G. Icusi cenduan zuc Cristo jayotzen?

E. Ez Jauna.

G. Icusi cenduan iltzen edo ceruetara igotzen?

E. Ez Jauna.

G. Sinisten dezu?

E. Bai Jauna, sinisten det.

G. Cergatic sinisten dezu?

E. Cergatic Jaungoicoac errebelaturic, Eliza Ama Santuac onela eracusten digun.

G. Cer gauza dira cristabac becela dituzunac eta sinisten dituzunac?

E. Ama Eliza Santa Erromacuac dituanac eta sinisten dituanac.

G. Cer da zuc eta Erromaço Elizac dezuena ta sinisten dezuena?

E. Articulo fedecoac, principalmente Credoan dauden becela.

G. Cer gauza dirade articulo fedecoac?

E. Dirade fedeço misterioric principalenac.

goan ofrecituric aren serbizio santura.

G. Cer da cristabaren señalea?

E. Gurutze Santua.

G. Cergatic?

E. Cergatic dan Cristo crucificatuaren figura, bada gurutzean redimitu guinducen.

G. Zenbat modutan eguiten du cristau bat señale au?

E. Bitan.

G. Zeiñ dirade?

E. Ziñatzea ta santiguatzea.

G. Zer gauza da ziñatzea?

E. Iru gurutze eguitea escuico escuaren aurreneco beatsarequin: lenengoa becoquian, bigarrena aoan, irugarrena bularretan, itz eguiten dala Jaungoico gure Jaunarequin.

G. Eguin ezazu nola?

E. Gurutze Santuaren señaleagatic † gure etsayetatic † libra gaitzatzu,

G. Certaraco dirade articulo fedecoac?

E. Emateco noticia Trinidade Santisimoarena eta gure Redentore Jesucristorena.

G. Nor da Jaungoicoa?

E. Da gauza bat esan eta pensatu alditequean baño ere excelenteagoa ta amirablegoa, Jaun bat infinitamente poderosoa, sabioa, justua, principioa eta fiña gauza guztiena.

G. Trinidade santisimoa nor da?

E. Da Jaungoicoa bera, Aita eta Semea eta Espiritu Santua iru persona diferenteac eta Jaungoico eguiazco bat.

G. Aita Jaungoicoa da?

E. Bai Jauna:

G. Semea, Jaungoicoa da?

E. Bai Jauna.

G. Espiritu Santua Jaungoicoa da?

E. Bai Jauna.

G. Iru Jaungoico dira?

E. Ez da Jaungoico eguiazco bat baicic.

G. Aita Semea da?

E. Ez Jauna.

G. Espiritu Santua da Aita edo Semea.

E. Ez Jauna.

G. Cergatic?

E. Cergatic personac diraden diferenteac Jaungoico eguiazco bat bada ere.

G. Nola da Jaungoico guciz poderosoa?

E. Cergatic bere nai izatearequin, beste gabe, eguiten duan nai duan guztia.

G. Nola da Criadorea?

E. Cergatic ecerecetic eguin cituan gauza guztiac.

G. Nola da Salbadorea?

E. Cergatic ematen- digun gracia eta barcatzen dizquigun pecatuac.

G. Nola da Jaungoico glorificadorea?

E. Cergatic ematen dion gloria arengracian irauten duanari.

G. Jaungoicoac badu gorputzaren figuraric guc becela?

E. Ez du Jaungoicoa dan partetic cergatic dan espiritu purua, baña badu guizona dan partetic.

G. Iru personetatic ceiñ eguin zan guizon?

E. Bigarrena, ceña dan Semea.

G. Aita eguin zan guizon?

E. Ez Jauna.

G. Espiritu Santua eguin zan guizon?

E. Ez Jauna.

G. Ceiñ eguin zan bada?

E. Semea bacarric, ceñari guizon eguiñic deritza Jesucristo?

G. Beraz orrela nor da Jesucristo.

E. Da Jaungoicoaren Seme bicia, guizon eguin zana gu salbatzeagatic eta nola bici eracusteagatic.

G. Cer esan nai du Jesusec?

E. Salbadorea edo libratzallea.

G. Cergatic salbatu edo libratu guinducen?

E. Gure pecatuetatic eta demonioaren mendetic.

G. Cer esan nai du Cristoc?

E. Untatua.

G. Certzaz izandu zan untatua?

E. Espiritu Santuaren graciaz eta doaiaz.

G. Cristo gure Jauna nola izandu zan concebitua ta jayo zan Ama Birgiñagandic?

E. Eguiten zuala Jaungoicoac obra milagrosoa.

G. Ta Cristoren ama gueroz beti izandu zan Birjiña?

E. Bai Jauna beti izandu zan Birjiña.

G. Cergatic nai izandu zuan ill gurutzean?

E. Gu pecatutic eta eriotzatic libratzeagatic.

G. Cer aditzen dezu Cristo ill ezquero jechi zala infernuetara?

E. Ez det aditzen condenatuen lecura, baicican Linbora juztuac ceudenera.

G. Nola jechi zan?

E. Cristoren anima Jaungoicotasunarequin unituric.

G. Ta Gorputza nola gelditu zan?

E. Jaungoikotasunarequin unituric.

G. Nola piztu zan irugarren egunean?

E. Biurtzen ziradela juntatzera aren gorputza eta anima gloriosoa ez gueyago iltzeco.

G. Nola igo zan ceruetara?

E. Bere biturte propioarequin.

G. Cer da egotea eseriric Aita Jaungoicoaren alde escuitic?

E. Izatea Aitac ainbat gloria Jaungoicoa dan partetic, ta guizona dan partetic, beste guciac baño gueyago.

G. Noiz etorrico da biciac eta illac juzgatzera?

E. Munduaren azquenean edo acaberan.

G. Ta orduan ill guciac bear dute piztu?

E. Bai jauna, izandu zituzten ariña ta gorputzarequin berarequin.

G. Cer sinisten dezu esaten dezunean sinisten det Santuen Comunioa?

E. Cristatu fiel guciac dutela parte besteen ontasun espiritualetan, gorputz baten mienbroac vecela ceña dan Eliza.

G. Cer da Eliza?

E. Da cristau fielen congregacioa, ceñaren burua dan Erromaco Aita Santua.

G. Nor da Aita Santua?

E. Da Cristoren Bicarioa lurrean, ceñari guztioc gauden obligatuac obedecitzera.

G. Sinisten dezu credoa eta articuluaz gañera beste gauzaric?

E. Bai jauna. Escritura sagraduan dagoana ta Jaungoicoac Elizari errebelatu dion guztia.

G. Cer gauza dirade oriec?

E. Ez didazula ori galdetu neri, bada naiz ignorantea: baditu Eliza Ama Santac doctoreac jaquingo ditenac erantzuten.

G. Ongui diozu, bada doctoreac bear due eman contu gure fede santuco gauza guztiena eta ez zuc; zuretzat asco da ematea articuluena credoan dauden becela.

# DOCTRINA CRISTIANAREN

## BIGARREN PARTEA, CEÑEAN DECLARATZEN DAN CER ESCATU BEAR DAN ETA ELIZA AMA SANTAREN ORACIOAC.

Icusi det nola daquizun cer sinistu bear dezun, ceña dan lenengo jaquin bear dan gauza; guacen bigarrenera ceña dan cer escatu bear dan jaquitea Esan ezazu.

G. Norc esan zuan Aita gurea?

E. Jesucristoc bere aotic.

G. Certaraco?

E. Guri oracio eguiten eracusteco.

G. Cer da oracioa eguitea?

E. Da jasotzea biotza Jaungoicoagana eta escatzea mesedeac.

G. Pater-nosterra esaten dezunean norequin itz eguiten dezu?

E. Jaungoico gure Jaunarequin.

G. Nun dago Jaungoico gure Jauna?

E. Lecu gucietan especialmente ceruan eta Sacramentu Santu Aldarecoan

G. Cein da oracioetan onena?

E. Aita gurea.

G. Cergatic?

E. Cergatic Apostoluac escatu eta esan zuan Jesucristoc bere aotic.

G. Cergatic gueyago?

E. Cergatic dituan zazpi peticio caridade guciac fundatuac.

G. Cein dirade?

E. Lenengoa. santificatua izan bedi zure icena.

G. Cer escatzen dezu peticio orretan?

E. Jaungoicoaren izena izan dedilla ezagutua eta onratua mundu guztian:

G. Cein da bigarrena?

E. Betor gugana zure erremoa.

G. Cer escatzen dezu peticio orretan?

E. Reina dezala Jaungoicoac gure animetan emen lurrean graciarequin eta guero eman dizagula gloria.

G. Cein da irugarrena?

E. Eguin bedi zure borondatea nola

ceruan ala lurrean.

G. Cer escatzen dezu peticio orretan?

E. Eguiñ dezagula Jaungoicoaren borondatea lurren gaudenac bienaventuraduac ceruan eguiten duen becela.

G. Cein da laugarrena?

E. Eman iguzu gure egunerôco oguia.

G. Cer escatzen dezu peticio orretan?

E. Eman dizagula Jaungoicoac gorputzarentzat mantenu coñbeni zaguna ta animarentzat graciaren mantenu espiritualá ta Sacramentuac

G. Cein da bostgarrena?

E. Barca guizquiguzu gure zorrac guc gueren zordunai barcatzen diegun becela.

G. Cer escatzen dezu peticio orretan?

E. Barca deguizquigula Jaungoicoac gure pecatuac guc barçatzen diegun becela agrabiatu gaituenai eta gai-

qui eguin diguenai.

G. Cein da seigarrena?

E. Ez gaitzazuña utzi tentacioan erortzen.

G. Cer escatzen dezu peticio orretan?

E. Ez digula utzi Jaungoico gure Jaunac erortzen eta consentitzen pensamentu eta tentacioa gaistoetan.

G. Cein da zazpigarrena?

E. Baicican libratu gaitzatzu gaitzetic.

G. Cer escatzen dezu peticio orretan?

E. Libra gaitzala Jaungoico gure Jaunac animaco eta gorputzeco gaitz eta peligro guztietatic.

G. Cergatic esaten dezu lenengo, Aita gurea zeruetan zaudena?

E. Jasotzeco biotza Jaungoicoagana eta escatzeco mesedeac humildade eta confianzarequin.

G. Cer esan nai du itz, *Amen* azquenean añaditzen dezu arc?

E. Ala izan dedilla.

G. Cer oracio esaten diozcatzu principalmente Birgiña Soberanari?

E. Ave Maria eta Salvea.

G. Esan ezazu, nor esan zuan Ave Maria?

E. Aingueru San Grabrielec Maria Birgiña bisitatzera etorri zanean.

G. Norc esan zuan salvea.

E. Ama Eliza Santac, ceña daducan erecibituric.

G. Certaraco?

E. Faboreac escatzeco Ainguerüen erreguiña Maria Santisimari.

G. Ave Maria edo salvea esaten dezunean norequiin its equiten dezu?

E. Gure Señora Maria Birgiñarequin.

G. Nor da gure Señora Maria Birgiña?

E. Da Señora birtutez eta graciaz bete bat, ceña da Jaungoicoaren Ama eta dagoana ceruan.

G. Eta Aldarean dagoana nor da?

E. Da ceruan dagoanaren imagiña ta

semejanza bat.

G. Certaco dago an?

E. Aldarean dagoana icusi ta acorda gaitezen zeruan dagoanaz, eta cergatic dan aren imagiña erreberenciatu dezagun.

M. Au bera eguin bear dezu beste Santuaren imagiñaquin.

G. Eguin bear degu oracio Santuai ere?

E. Bai jauna, gure medianero favorecitzalleai becela.

G. Cer gauza dira Aingueruac?

E. Dirade espiritu bienabenturadu batzuec daudenac ceruan Jaungoicoaz gosatzen.

E. Certaco criatu zituan Jaungoico gure Jaunac?

E. Eternidade guzian alabatu eta bedeincatu dezaten.

G. Certaco gueyago?

E. Aren Ministroac becela goberna de-

zaten Eliza, ta gorde ditzaten guizonac.

G. Beraz badezu zuc Ainguеru guardacoa?

E. Bai jauna, badet, eta guizon bacoitzac du bere ainguеru guardacoa.

M Izan eguiozu bada devocio, eta erregutu eguiozu eguneró falta bague.

# DOÇTRINA CRISTIANAREN

## IRUGARREN PARTEA, CEÑEAN DECLARATZEN DAN CER OBRATU BEAR DAN.

Icusi det nola daquizun zer sinistu bear dezun, ta zer oracio eguin bear de-cer obratu bear dezun; Cristauac bezela zun: icusi dezagun orain nola daquizun esan ezazu:

G. Cein da Jaungoicoaren legueco lenengo mandamentua?

E. Jaungoicoa amaczea gauza guzien gañean.

G Nore amatzen du Jaungoicoa?

E. Aren mandamentuac gordetzen dituanac.

G. Cer da Jaungoicoa gauza guztien gañean amatzea?

E. Naigo izatea galdu bizitza Jaungoicoa ofenditu baño.

G. Certara gueiaco obligatzen du mandamentu onec?

E. Jaungoicoa bacarric adoratzea gor-

putzeco eta animaco reberenzi guztiarequin, sinisten eta esperatzen dala beragan fede osoarequin.

G. Norc eguiten du pecatu mandamentu onen contra?

E. Idiloak edo Jaungoico falsoac adoratzen dituanac, eta aietan sinisten duanac.

G. Tar norc gueyago?

E. Aztiquerietan edo gauza superstíciosoetan, sinisten duenac.

G. Cein da bigarrena?

E. Juramentu alferric ez eguitea.

G. Norc eguiten du juramentu alferric?

E. Juramentu eguiten duanac eguia bague, justicia bague eta premia bague.

G. Pecatu da juramentu alferra eguitea criaturacgatic?

E. Bai jauna, cergatic onetan eguiten zaion juramentu Criadoreari.

G. Cer erremedio da ez eguiteco juramento alferric?

E. Acostumbratzea esatera bai edo ez Cristoc eracusten digun becela.

G. Cein da irugarrena?

E. Jai egunac santificatzea.

G. Norc santificatzen ditu jai egunac?

E. Meza osoa entzuten duanac ta premia bague ayetan bacarric lan eguiten ez duanac.

G. Cein da laugarrena?

E. Aita eta ama onratzea.

G. Nor onratzen ditu gurasoac?

E. Obeditzen dituenac, socorritzen ta erreberenciatzen dituenac.

G. Norc aditzen dirade besteric gurasotzat?

E. Aundiagoac edadean dignidadean eta gobiernoan?

G. Cein da bostgarrena?

E. Iñor ez iltzea.

G. Cer aguintzen da mandamentu one-

tan?

E. Ez eguitea iñori gaictic ez itzez, ez obraz, eta ez deseoz.

G. Cein da seigarrena?

E. Lujuriaco pecaturic ez eguitea.

G. Cer aguintzen da mandamentu onetan?

E. Izan gaitecela garbiac eta castoac pensamentuetan, itzetan eta obretan.

G. Ceinda zazpigarrena?

E. Ez oztutzea.

G. Cer aguintzen da mandamentu onetan?

E. Ez quentzea, ez eduquitzea eta ez nai izatea besteren gauzaric jabearen borondatearen contra.

G. Cein da zortzigarrena?

E. Testimonio falsoric ez jazotzea eta guezurric ez esatea.

G. Cer aguintzen da mandamentu onetan?

E. Ez eguitea projimoaren contra jui-

cio gaiztoric, ez esatea eta ez aditzea aren faltac.

G. Norc ausitzen du mandamentu au?

E. Arrazoyaren contra juzgatzen duanac; fama quentzen duanac, secretoa descubritzen duanac edo guezurra esaten duanac.

G. Cer eragosten da bederatzigarren eta amargarren mandamentuetan?

E. Deshonestidadearen eta haciendaren deseoac.

M. Esan iztzatzu Ama Eliza Santaren mandamentuac:



## AMA ELIZA SANTAREN

### MANDAMENTUAC DIRADE BOST.

Lenengoa, igandeetan eta beste jayetan Meza osoa entzutea.

Bigarrena, urtean bein guchienaz confesatzea, edo lenago iltzeco peligroric esperatzen bada.

Irugarrena, Pazcoa Resurreciocotan comulgatzea.

Laugarrena, Ama Eliza Santac aguintzen duanean barautzea.

Bostgarrena, amarrenac eta primiciac pagatzea.

G. Certaraco dira mandamentu oec?

E. Obeto gordetzeco mandamentu divinoac.

M. Esan itzaitzu Obra misericordiazcoaz.





## OBRA MISERICORDIAZCOAC

DIRADE AMALAU, ZAZPI ESPIRITUALAC ETA ZAZPI CORPORALAC.

---

### ZAZPI ESPIRITUALAC DIRADE OEC

Lenengoa, ez daquinari eracustea; bigarrena premia duanari conseju ona ematea: irugarrena, gaizqui eguiten duana corregitzea: laugarrena, injuriac barcatzea: botsgarrena, triste dagoana consolatzea: seigarrena, gure progimuen miseriac eta flaquezac pacienciarequin sufritzea: zazpigarrena, biciacgatic eta illacgatic Jaungoicoari erregutzea.

## ZAZPI CORPORALAC

DIRADE OEC.

Lenengoa, enfermoac bisitatzea: bigarrena, goseac dagoanari jaten ematea: irugarrena, egarriac dagoanari edaten ematea: laugarrena, cautiboac errescatatzea: bostgarrena, larru gorrian dagoana jantzitzea: seigarrena, peregrinoari ostatu ematea: zazpigarrena, illac enterratzea.

G. Cergatic deitzen zaie obra misericordiac?

E. Cergatic ez diraden zor justiciaz.

G. Noiz obligatzen dute pecatu mortalaren azpian?

E. Guizon discretoen juicioan grabeac diraden necesidadeetan.

---

# DOCTRINA CRISTIANAREN

## LAUGARREN PARTEA, CEÑEAN DECLARATZEN DIRADEN SACRAMENTU ERRECIBITU BEAR DIRADENAC.

Icusi det nola daquisun cer sinistu, cer oracio eguin eta cer obratu bear dezun; icusi dezagun orain nola daquizun zer errecibitu bear dezun, ceña dan azquenecoa. Esan itzazu Ama Eliza Santaren sacramentuac:

### AMA ELIZA SANTAREN SACRAMENTUAC DIRADE ZAZPI.

Lenengo bostac dirade necesarioac errecibitu bear diradenac obraz edo deseoz, eta oec bague ecin salva diteque guizona utzitzen baditu menosprecioz: beste biac dirade borondatezcoac. Le-

nengoa, bautismoa: bigarrena, confirmacioa: irugarrena, penitencia: laugarrena, comunioa: bostgarrena, extremauncioa: seigarrena, sacerdoteen ordena: zazpigarrena, matrimonioa.

G. Cer gauza dirade Sacramentuac?

E. Dirade señale batzuec eguin cituanac Jesucristo gure Jaunac ematecoguri oequin bere gracia eta birtuteac.

G. Cer gauza da gracia?

E. Da izate dibino bat eguiten duana guizona Jaungoicoaren Seme eta ceruaren eredero.

G. Cer biturte ematen die sacramentuac graciarequin batean?

E. Principalmente iru teologalac eta dibinoac.

G. Cein dirade?

E. Fedea, Esperantza eta Caridadea.

G. Cer gauza da fedea?

E. Sinistea icusi ez guenduena, cerga-

tic Jaungoicoac ala errebelatu duen.

G. Cer gauza da esperantza?

E. Esperatzea gloria eta ondasun eternoac Jaungoaren graciaren eta gure obra onen medioz.

G. Cer gauza da caridadea?

E. Amatzea Jaungoicoa gauza guztien gañean, eta gure projimoa gueren buruac becela, izaten guerala aiequin, ayec gurequin izatea nai degun bezela.

G. Certaraco izandu zan eguiña Sacramentu Santu Bautismocoa?

E. Quentzeco pecatu originala ta bataiatzen danagan arquitzen dan beste edocein.

G. Cer gauza da pecatu originala?

E. Pecatu ura, ceñarequin jaiotzen gueraden, eredaturic gure lenengo gurasoetatic.

G. Certaraco da Sacramentu Santu Confirmaciocoa?

E. Confirmatzeco eta ipintzeco fuente bautismoan errecibitu guenduen fedean.

G. Certaco da Sacramentu Santu penitenciacoa?

E. Bataitu ezquero eguindaco pecatu barcatzeco.

G. Cer pecatu dira oriec?

E. Pecatu mortalac principalmente, eta baita benialac ere.

G. Cer gauza da pecatu mortala?

E. Da esatea eguitea pensatzea edo deseatzea cerbait gure Jaungoico Soberanoaren legue Santuaren contra gauza grabean.

G. Cergatic deritza mortala?

E. Cergatic iltzen duan eguiten duanaren anima.

G. Cer parte ditu penitenciac quentzeco pecatu mortalac?

E. Iru, Jauna.

G. Cein dirade?

E. Biotzeco contricioa, aozco confesioa, eta obrazco satisfacioa.

G. Pecatariac pecatu mortalean erortzen dan gucian bear du confesatu bereala pecatuac barcatzeco?

E. Ongui izango litzaque, baña ez da precisoa.

G. Cer eguin beardu bada?

E. Bere pecatuen dolore eguiazcoa eduquitzea enmendatzeco eta confesatzeco propposituarequin, Ama Eliza Santac aguintzen duanean.

G. Cer da pecatu beniala?

E. Da pecatu mortalaren disposicio bat.

G. Cergatic deritza beniala?

E. Cergatic erraz erortzen dan guizona artan, eta erraz barcatzen dan.

G. Cenbat gauzagatic barcatzen da?

E. Bederatzigatic.

G. Cein dirade?

E. Lenengoa: meza entzuteagatic: bi-

garrena, comulgatzeagatic: irugarrena, confesio generalagatic: laugarrena, Obispoaren bendiciogatic; bostgarrena, ur bedeicatua gatic: seigarrena, ogui bedeincatuagatic: zazpigarrena, Aita gurea esateagatic: zortzigarrena, sermoia aditzeagatic: bederatzigarrena, pechuco golpeagatic, escatzen zaiola barcacioa Jaungoico gure Jaunari.

G. Certaco da Sacramentu Santu Comuniocoa?

E. Errecibitzen degula beardan disposicioaren, izan dedin gure animen mantenimentu eta aumenta ditzagun beraren graciac.

G. Cer errecibitzen da Sacramentu Santu onetan?

E. Jesucristo gure Jauna Jaungoico eta guizon eguiazcoa ceña dagoan eguiaz Sacramentu santu aldarecoan,

G. Certaraco da Sacramentu Santu Extremaunciocoa?

E. Iru gaucetaraco.

G. Cein dirade?

E. Lenengoa, bicitza gaisto pasatuaren arrasto eta reliquiac quentzeco: bigarrena, animari indarra emateco demonioaren tentacioen contra: irugarrena, gorputzari osasuna emateco conbeni bazayo.

G. Certaraco da Sacramentu Santu Ordenaçoa?

E. Consagratzeco eta ordenatzeco Elizaco Ministro dignoac, nola diraden Saçerdoteac, diaconoac eta beste gañeracoac.

G. Çertatraco da Sacramentu Santu matrimoniocoa?

E. Ezcontzeco eta emateco ezconduai grazia, onequin bici ditecen paquean eta criatu ditzaten şemeac ceruetaco.

## PECATU CAPITALAC DIRADE

### ZAZPI.

Lenengoa, soberbia: bigarrena, abaricia: irugarrena, lujuria: laugarrena, ira: bostgarrena, gula: seigarrena, enbidia: zazpigarrena, naguitasuna.

G. Cergatic deitu diezu pecatu capitalac zazpi gueyenian mortalac esaten zayenai?

E. Deitu diet capitalac cergatic diraden beste bicio ayetatic jayotzen diranen buruac, iturriac eta sustrayac becela, eta mortalac deitzea ez dator aiñ ongui, bada ascotan ez dirade benialac baño gueyago.

G. Noiz dirade mortalac?

E. Jaungoicoaren eta projimoaren caridadearen contra diradenean.

G. Noiz dirade caridadearen contra?

E. Aequin ausitzen danean Jaungoicoaren edo Elizaren mandamentuaren bat gauza grabean.

G. Cer da soberbia?

E. Besteac baño gueyaco izateco apetitu desordenatu bat.

G. Cer da avaricia?

E. Aciendaren apetitu edo deseo desordenatu bat.

G. Cer da lujuria?

E. Araguiaren gusto ciquiñen apetitu desordenatu bat.

G. Cer da ira?

E. Bengantzaren deseo desordenatu bat.

G. Cer da gula?

E. Jateco eta erateco deseo gueyegui bat.

G. Ser da enbidia.

E. Besteren onaren damatasuna.

G. Ser da naguitasuna?

E. Obra onac eguiteco animoaren falta.

## ZAZPI BICIOEN CONTRA

### DIRADE ZAZPI BIRTUTE

Soberbiaren contra, humildadea: aba-

riciaren contra, liberalidadea: lujuriaren contra, castidea: iraren contra, paciencia: gularen contra, tenplanza: enbidiaren contra, caridadea: naguitasunaren contra diligencia.

ANIMAREN ETZAYAC CENETATIC *igues eguin bear degun dirade iru*

Lenengoa, mundua: bigarrena, demonioa: irugarrena, araguia.

G. Nola igues eguiten da munduagandic?

E. Despreciatzen dirala aren ponpac eta vanidadeac.

G. Nola igues eguiten da demonioagandic?

E. Oracioarequin eta humildadearequin.

G. Nola igues eguiten da araguiagandic?

E. Mortificacioarequin, bigiliarequin eta barauaquin; eta au da etsairic andiena, cergatic araguia ecin apartatu degun guregandic, bañan bai mun-

dua ta demonioa.

BIRTUTE TEOLOGALAC DIRADE IRU.

Lenengoa, fedea: bigarrena, esperantza: irugarrena, caridadea.

BIRTUTE CARDINALAC DIRADE LAU.

Lenengoa, prudencia: bigarrena, justicia: irugarrena, fortaleza, laugarrena, tenplanza.

GORPUZAREN SENTIDUAC DIRA BOST.

Lenengoa, icustea beguiaquin: bigarrena, aditzea belarriaquin: irugarrena, gustatzea aorequin: laugarrena usai eguitea sudurrarequin: bostgarrena, uquitzea escuaquin.

G. Certaco eman cizquigun Jaungoicoac sentiduac eta beste mienbroac?

E. Guztiaquin serbitzeco aren dibina Majestadea.

ANIMAREN POTENCIAC DIRADE IRU.

Memoria, entendimentua eta borondatea.

G. Certaraco eman cigun Jaungoicoac memoria?

E. Acordatzeco artzaz eta aren mesede andiz.

G. Certaraco eman cigun entendimentua?

E. Ezagutzeco Jaungoicoa eta argan pensatzeco.

G. Certaco eman zigun Jaungoicoac borondatea?

E. Ama dezagun ontasun guztiaduna becela, eta projimoac argatic.

ESPIRITU SANTUAREN DOAIAC DIRIDE ZAZPI.

Lenengoa, jaquindurico doaia: bigarrena, entendimentuco doaia: irugarrena, consejuco doaia: laugarrena, fortalezaco doaia: bostgarrena, cienciaco doaia: seigarrena, piedadeco doaia: zazpigarrena, Jaungoicoaren bildurtasuneco doaia.

ESPIRITU SANTUAREN FRUTUAC DIRADE AMABI.

Lenengoa, caridadea: bigarrena paquea: irugarrena, animaren aunditasuna: laugarrena, benignidadea: bostga-

rrena, fedea: seigarrena, continencia: zazpigarrena, gozo espiratuala: zortzigarrena, paciencia: bederatzigarrena, ontasuna: amargarrena, mansedunbrea: amaicagarrena, modestia: amabigarrena, castidadea.



# BIENABENTURANTZAC

## DIRADE ZORTZI.

1. Bienabenturaduac pobreza escogitzen duenac, cergatic aena dan ceruetaco reinoa.
2. Bienabenturaduac mansoac, cergatic aec izango diraden lurraren jabeac.
3. Bienabenturaduac negar eguiten duenac, cergatic aec izango diraden concolatuac.
4. Bienabenturaduac justiciaren gosea eta egarria duenac, cergatic izango diraden contentatuac.
5. Bienabenturaduac misericordiosoac, cergatic aec alcanzatuco duen misericordia.

6. Bienabenturaduac biotz garbia duenac, cergatic aec icusico duen Jaungoicoa.
7. Bienabenturaduac paqueosoac cergatic aec izango diraden deituac Jaun goicoaren semeac.
8. Bienabenturaduac justiciagatic persecucioa padecitzen duenac, cergatic aena dan ceruetaco reinoa.

G. Cer esan dituzu orain?

E. Zortzi bienabenturantzac.

G. Cer gauza dirade Bienabenturantzac?

E. Birtuteen eta Espiritu Santuaren doaiaen obraric onenac.

G. Nor dirade pobreza escogitzen duenac?

E. Nai ez duenac onraric eta aberastasunic, chiquiac izanagatic ere.

G. Nor dirade mansoac?

E. Gorrotoric ez duenac, ezta aren mobimentoric ere.

G. Nola dirade lurraren jabeac?

E. Beren buruen jaunac becela.

G. Nor dirade negar eguiten duenac?

E. Gustoac utzitzen dituenac chiquienac izanagatic ere.

G. Nor dirade justiciaren gosea eta egarria duenac?

E. Cuidadoarequin obligacio duen guciac eguiten duenac.

G. Nor dirade misericordiosoac?

E. Piedade guztia duenac arrotzaquin ere.

G. Nor dirade biotz garbia duenac?

E. Beren pasio gustietan mortificatzen diranac.

G. Nor dirade paquecosoac?

E. Paquea obratzen dutenac, berenetan eta besterenetan.

G. Nor dirade justiciagatic padecitzen dutenac?

E. Justician firme daudenac perseguituac izanagatic ere.

G. Cergatic deitzen zaie oei Bienabenturantzac?

E. Cergatic oetan dagoan bicitza onctaco bienabenturantza eta bestecoaren esperantza.

M. Jaungoicoac eraman gaitzala guzioc ara.

E. Amen.

## CONFESIO GENERALA.

Ni pecataria confesatzen naitzaio Jaungoico guztiz poderosoari, Santa Maria Beti Birgiñari, San Miguel ainguerúari, San Juan Bautistari, San Pedro ta San Pablo apostoluai Santu guztiai eta zuri, aita espirituala, ceren eguin dedan pecatu pensamentuz, itzez eta obraz, nere culpaz, nere culpaz, nere culpa chit aundiaz. Argatic erregutzen diot Santa Maria beti Birgiñari, San Miguel ainguerúari, San Juan Bautistari; San Pedro ta San Pablo apostoluai, Santu guztiai, eta zuri aita espirituala,

erregutu deguiozula nigatic Jaungoico gure Jaunari. Amen.

CONCIENCIA EGUNERO ESAMIÑATZECO MODUAC DITU BI DENBORA, TA BOST PUNTU.

LENENGO DENBORA.

Goizean esnatzen danean jasoco du biotza Jaungoicoagana eta ofrecituco diozcu egun artaco pensamentuac itzac eta obrac; proponituco du, edo artuco du propositua, ez ofenditzea aren dibina Majestadea, ta escatu au cumplitzeco gracia.

BIGARREN DENBORA.

Arratzean oera etzin baño lenago jarrico da belaunico, esango du Confesio generala eta eguingo du emen esaten dana.

LENENGO PUNTUA.

Emango diozca graciac Jaungoicoari mesede erecibitu dituanacgatic nola diraden: cergatic eriatu zuan, redimitu

zuan, Cristau eguint zuan eta conserbatzen duan particularmente berari eguin diozcan mesede principalagatic, ceñegatic dion esagüera particularra.

BIGARREN PUNTUA.

Escatuco dio aren dibina Majestadeari arguia ta gracia ezagutzeco egun artaco faltac.

IRUGARREN PUNTUA.

Juango da pensatzen esnatu zanetic ordu artaraño ceñean arquitzen dan, pensatzen duala ordutic ordura, pensamentuz, itzez ta obraz, cer eguin, esan eta pensatu duan.

LAUGARREN PUNTUA.

Ateraco ditu garbiro obra on eguin dituanac ta emango diozca graciac Jaungoicoari aecgatic.

BOSTGARREN PUNTUA.

Artuco du damutasuna biotzetic eguin dituen falta gucien eta escatuco dio Jaungoicoari aien barcacioa, proponitzen

duaia emendatzea eta eguingo du acto contriciozcoa seguitzen dan moduan.

## ACTO CONTRICIOZCOA.

Nere Jesucristo Jauna, Jaungoico ta guizon eguiazcoa, nere Criadorea ta Redentorea, zu cerana izanagatic eta cergatic amatzen zaitudan beste gauza guztiac baño gueyago, damu det, Jauna nere biotz guztitic zure dibina Majestadea ofenditua, artzen det propositu firmea ez gueyago pecaturic eguiteco eta apartatzeco zure ofensaco ocasio guztietatic, eta confesatzeco eta cumplitzeco penitencia: ofrecitzen dizquitzut, Jauna, nere bicitza, obrac eta trabajuac nere pecatuen satisfacioraco, eta nola suplicatzen dizudan ala daducat confiantza zure ontasun eta misericordia infinituagan, barcatuco dizquidazula zure odol precioso, pasio eta eriotzaren merecimentuagatic eta emango didazula gracia emendatzeco eta perseberatzeco nere biei guztian. Amen Jesus.

## ENCARNACIOCO

### MISTERIOREN ESPLICACIOA.

G. Zertan consistitzen da Encarnacioco misterioa?

E. Trinidade Santisimoco Bigarren Persona ceña dan Semea, guizon eguitea Maria Santisimaren entraña garbietan, guizonaren obra gabe, baicican Espiritu Santuaren obraz gueldizen zala Señora au Birgiña, Semea eguin baño len, eguitean eta eguin ezquero.

G. Cer obra eguiñ zuan Espiritu Santuac?

E. Formatu zuan Maria Santisimaren entrañetaco odol garbiarequin Jesucristo gure Jaunaren gorputza criatu zuan anima, unitu zuan anima

gorputzarequin, anima ta gorputza unitu cituan Semearen personarequin eta au izandu zan eguitea Jaungoicoa guizon.

G. Obra marabilloso au Espiritu Santuac becela etzuten eguiñ Aitac eta semeac ere?

E. Bai Jauna, irurac eguiñ zuten.

G. Cergatic esaten da bada izandu zala Espiritu Santuaren obra?

E. Cergatic izan zan amoriozco obra ta amorioa atribuitzen zaio Espiritu Santuari, Aitari poderea, eta Semeari sabiduria becela; baña iru personac, Jaungoico guztiz poderoso batec becela, eguin bazuten ere obra soberano au, Semeac bacarric artu zuan guizonaren naturaleza: onegatic ditu Semeac bi naturaleza, bata dibinoa Jaungoicoa dan partetic, ta bestea umanoa guizona dan partetic, ta Aitac eta Espiritu San-

tuac ez dute Jaungoicoaren naturaleza baicic.

G. Cenbat entendimentu ditu Cristoc?

E. Bi, bata dibinoa Jaungoicoa dan partetic, eta bestea umanoa guizona dan partetic.

G. Cenbat borondate ditu Cristoc?

E. Bi, bata dibinoa Jaungoicoa dán partetic, eta bestea umanoa guizona dan partetic.

G. Cenbat persona arquitzen dira Cristogan?

E. Bat bacarra, ta au da Persona dibinoa, beda persona umanoric ez da arquitzen Cri-togan.

G. Cenbat memoria ditu Cristo?

E. Bat eta au da guizona dan partetic, cergatic Jaungoicoa dan partetic gauza guztiac dauzca presente ta ez du memorian bearric.

G. Cristoc badu aitaric edo amaric?

E. Jaungoicoa dan partetic badu Aita,

ceña dan Aita-Eternoa, Trinidade Santisimoco lenengo persona, eta ez du amaric; ta guizona dan partetic du Ama, ceña dan Maria Santisima eta ez du aitaric.

G. Cristo Jaungoicoa dan partetic edo guizona dan partetic izandu zan lenago?

E. Jaungoicoa dan partetic izandu zan ascoz lenago guizona dan partetic baño cergatic Cristo Jaungoicoa dan partetic ez du asieraric eta demboraric Jaungoicoa izandu ez danic; baña guizona dan partetic izandu da dembora Cristo izandu ez dana.

G. Nun dago Cristo?

E. Jaungoicoa dan partetic dago lecu gucietan, baña guizona dan partetic ez dago ceruan ta aldareco Sacramentu Santuan baicic.

---



## SACRAMENTU SANTU

### ALDARECOAREN ESPLICACIOA.

G. Cer dago aldareco Sacramentu Santuan?

E. Dago Jesucristo gure Jauna, Jaungoico eta guizon eguiazcoa ceruan dagoan becela.

G. Cer dago ostian consagratu baño lenago?

E. Ogui pisca bat.

G. Eta cer dago consagratu ezquero?

E. Dago Jesucristo gure Jaunaren gorputza, eta nola gorputza dagoan biciric eta unituric Jaungoicoaren Semearen personarequin, badago odola ere, baita anima, Jaungoicotasu-

na ta iru Persona dibinoac ere.

G. Cer dago Calizan consagratu baño lenago?

E. Ardo puruba ur tanto batequin.

G. Eta cer dago consagratu ezquero?

E. Dago Jesucristo gure Jaunaren odola, ta nola dagoan gorputzárequin uniturie, badago gorputza ere, bai ta anima, Jaungoicotasuná eta iru persona dibinoac ere, alaco moduan non Jesucristo gucia dago Ostian eta Jesucristo gucia dago Calizan.

Sacramentu Santu onetan?

G. Icusten da Jesucristo gure Jauna

E. Ez da icusten oguiaren ta ardoaren colorea ta beste accidenteac baicic: baña an ez dago oguiric eta ardoric sacerdoteac consagracioco itzac esan esquero.

G. Ostia consagratuaren erdia edo parte bat errecibitzenduanac errecibitzen du Jesucristo gucia?

E. Gucia errecibitzen du enteroa edo osoa, bada aren dibina Majestadea ainbeste dago Ostiaren partetic chiquienean nola Ostia guztian cergatic partitzen badu ere sacerdoteac Ostia consagratua pusca ascotan, ez da partitzen Jesucristo gure Jauna, baicican guelditzen da osoa parte bacoitzean, ain aundia edo osoa parte chiquian nola aundian.

G. Cenbat gauza biar dira ondo comulgatzeco?

E. Iru Jauna.

G. Cein dirade?

E. Lenengoa, cer errecibitu bear duan jaquitea. Bigarrena, barau naturalean egotea. Irugarrena, Jaungoicoaren gracian egotea.

## *ORACIOA*

### COMULGATZERA DIJOANEAN ESATECO.

---

Nere Jauna eta Jesus dulcea, nic de-

seatzen det zure dibina Majestadea errecibitzea espiritu garbi eta caridadeaquin, ceñarequin errecibitu cinduten zure Ama Birgiña Santisimac eta Ceruco Santu guciac. Amen.

## ORACIOA

### COMULGATU ESQUERO ESATECO.

---

O ceruetaco eta lurreco Jaun Soberanoa! ¿Cer merecimentu izandu det nic etortzeco nigana ain Jaun aundia? ¡Bedeincatua izan dedilla zure ontasun eta misericordia! Cergatic eguiten diozun ainbeste mesede zure criatura oni. Aingueruac eta criatura guciac bedeinca zaitzatela, Jauna piedade aundi onegatic. Amen.

## ESPLICATZEN DIRADE

### CONFESIO ONAREN CONDICIOAC.

---

G. Cenbat dirade confesio onaren condicioac?

E. Bost jauna.

G. Cein dirade?

E. Lenengoa, esamiña; bigarrena, dolorea; irugarrena, propositua; laugarrena, confesioa; bostgarrena, satisfacioa.

G. Cer gauza da esamiña?

E. Pecatu eguiñ dituanac memoriara ecartzea, confesatzeco guztiac.

G. Cenbat dembora bear da pecatuac memoriara ecartzeco?

E. Ez da denbora señalaturic, baicican bere capacidadearequin eta denbora confesatu gabe egon danarequin conforme, bear du artu denbora bear duan gucia eta ipiñi negocio importanci aundico batean ipintzen dan cuidadoa, cergatic au da eguitecoric importanteena.

G. Nundic ecarrico ditu pecatuac memoriara?

E. Jaungoicoaren legueco Mandamen-

tuetatic, eta eliza Ama Santarenetatic, consideratzen duala cer mandamentuaren contra eguin duan pecatu eta cenbat bider, bere personaren estadu, oficio edo empleoarequin conforme, ateratzeco onela garbiro contuac pecatu pensamentuz, itzez ta obraz eguin dituanenaz.

G. Cer gauza da dolorea?

E. Jaungoicoa ofendituтaco damutasuna.

G. Cenbat modutan da dolorea?

E. Bitan, batari deritza contricioa ta besteari atricioa.

G. Cer gauza da contricioa?

E. Da Jaungoicoa ofendituтaco damutasuna, izanagatic aren dibina Majestadea dan beciñ ona, santua eta amablea.

G. Cer gauza da atricioa?

E. Jaungoicoa ofendituтaco damutasuna pecatuaren itsusitasunagatic, edo

cergatic pecatua dala mediante aparta gaitzaquean ceruco gloriatic eta castigatu infernuco penaquin.

G. Ceín da dolore oetan bietan onena?

E. Contricioa da azcoz obea atricioa baño, cergatic acto contriciozco eguiazcoa eguiten duanari confesatzeco propozituarequin barcatzen zaizca pecatuac confesatu baño lenago, eta acto au eguiten duan instante artan gueldítzen da Jaungoicoaren gracian, baña atriciozco actoan eguiten duanari etzaizca barcatzen pecatuac confesioco Sacramentuarequin batean baicic, eta onegatic balíjoaz confesatzera persona bi, bata contricioaren dolorearequin eta biac ilco balira confesatu baño lenago, contricioarequin dijoana salbatuco litzaque eta condenatuco litzaque atricioarequin dijoana.

G. Pecatu mortalean dagoana arquitu-

co balitz iltzeco peligroan eta confesore gabe, nola libratuco litzaque pecatutic?

E. Acto contriciozco bat eguin da.

G. Cer gauza da propositua?

E. Da determinacio firme bat ez bere bicitzaco denbora guztian beñere pecaturic eguiteco eta apartatzeco pecatu eguiteco ocasio gucietatic.

G. Apartatuco ez dañac pecatu eguiteco ocasiotic apartatu alditequeala, daduca propositu eguiazcoa?

E. Ez jauna, baicican falsoa.

G. Cer aditzen dezu confesioagatic?

E. Confesatzea pecatu mortal guciac utzi gabe batere lotsaz confesatu gabe.

G. Baña pecatu venialac confesatzeco obligacioric?

E. Obeagoa da confesatzea, baña ez da obligacioric.

G. Pecatu mortal bat confesatzea astu-

tzen bazayo, eguingo du confesio ona?

E. Eguingo du confesio ona ez-pazayo aztutzen esamiñaren faltaz baña izango du obligacioa confesatzeco urrengo confesioan pecatu astutzen zayona.

G. Pecatu mortal bat lotzaz confesatu gabe utzitzen duana, salba diteque beste peniteneiaquin?

E. Ecin salba diteque eguingo ba'itu ere Santu guziac eguin cituen baño penitencia gueyago.

G. Arquitzen bada pecataria pecatu chi grabe eta ichusi batequin, edo ascorequin billatuco du Erremedioa Erromara joan gabe?

E. Edozein confesore billatuco dio erremedioa Erromarajoan gabe.

G. Acusa dezaque confesoreac penitentea justiciara?

E. Eciñ acusa dezaque biciric dagoala

erreco balute ere.

G. Beraz ez da escusaric batere pecatuac confesatu gabe utzitzeco?

E. Ez jauna, eta confesatzen ez dituana bere culpaz condenatuco da erremedio gabe.

G. Cer gauza da satisfacioa?

E. Pagatutzea penitenciazco obraquin pena pecatuagatic zor dana.

G. Certan consistitzen da satisfacio au?

E. Confesoreac ematen duen penitenciac aceptatzen eta cumplitzean.

G. Penitencia aceptatzen duanac cumplitzeco intencioarequin eguiten du confesio ona expadu cumplitzen?

E. Bai jauna, baña cumplitu gabe utzitzen duanac penitencia grabea bada, eguiten dù pecatu mortala eta guelditzen da obligacioarequin pecatu au confesatzeco urrengo confesioan.

ORACIOA

Jauna altu ta Soberanoa ta Jaungoico eternoa, Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua. Nic sinisten det firmemente, emango diezula premioa onai eta castigua gaistoai. Daducat nere pecatu guztien damutasuna, zu zerana izanagatic, eta zergatic amatzen zaitudan beste gauza guztiac baño gueyago. Proponitzen det firmeza guztiarequin emendatzeazure graci divinoa requin eta nai det cumplitu penitencia confesoreac ematen dirana. Eta daducat esperanza zure ontasun eta misericordia infinituagan, barcatuco dira zula eta salbatuco nazula nere Jesucristo Jaunaren merecimentu andiagatic. Amen Jesus.

## ORACIOA

CONFESATU ESQUERO ESATECO.

Ematen diozcat gracia asco gure Jesucristo Jaunari, cergatic utci ciran onen erremedio erraza eta suavea nere peca-

tuen barcacioa alcantzatzeco; eta proponitzen det ez gueyago aren divina Majestadea ofenditzea. Amen.

ACTO FEDECO, ESPERANZACO ETA CARIDADECOAC, CEÑAC EGUIN BEAR DIRADEN URTEAN BEIN GUCHIENAZ

## ACTO FEDECOA

Sinisten det dala Jaungoico eguiazco bat eta iru persona diferenteac, ceñac diraden Aita eta Semea, eta Espiritu Santua. Sinisten det Trinidade Santisimoco bigarren persona eguin zala guizon Maria Santisimaren entraña garbietan Espiritu Santuaren obraz ta birtutez, gueldirtzen zala Señora Soberana au birgiña Semea eguin baño len, eguitean, eta eguin ezquero. Sinisten det Jaun onec padecitu zuala, ta il zala gu salbatzeagatic, piztu zala illen artetic irugarren egunean, igo zala ceruetara, eta etorrico dala biciac eta illac juzgatzera: au da, onac premiatzera eta gaiztoac

castigatzera. Sinisten det Aldareco Sacramentu Santuan dagoala Jesucristo gure Jauna, Jaungoico eta guizon eguiazcoa ceruan dagoan becela. Sinisten det Ama Eliza Santa Catolicoa Erromacoac sinisten duan guztia, eta fede onetan nai det bici eta ill.

## ACTO ESPERANZACOA

Daducat ezperantza Jaungoicoagan barcatuco dizquidala nere pecatu guciac eta emango dirala bere gracia eta gloria bere misericordia infinituagatic, Jesucristo nere Jaunaren merecimentuacgatic, eta aren Ama Santisimaren erreguagatic, eguiten badet nere partetic obligacio dedana, eta eguiten dezaquedana ceña dan penitenci eguiazcoa.

## ACTO CARIDADECOA

Amatzen det Jaungoicoa beste gauza guztiac baño gueyago, eta nayago ditut galdu guztiac aren Divina Majestadea ofenditu baño. Eta nai nuque amatu

munduco justu guztiac ta ceruco Bienaventuraduac, ta Serafin guztiac amatzen duen becela. Eta posible balitz, nai nuque amatu beraren Ama eta nere Señora Maria Santisimac amatzen duan bezela. Ez amatua, ofenditua, izatea ainbeste ofenditzen dutenac, eta guztiac ez amatzea aren dibina majestadea, bera dana izanagatic, damu det nere biotz guztitic eta proponitzen det emendatzea aren gracia mediante dala. Amen Jesus.

## EMEN ARE GUEYAGO BEARTZECO

*Ama Virgiña gure urruquitasun eta laguntzoren errezatzen da letani au.*

Kyrie eleyson.

Christe, eleyson.

Kyrie eleyson.

Christe, audi nos.

Christe, exaudi nos.

Pater de Cœlis Deus,

Fili Redemptor mundi Deus,
Spiritus Sancte Deus.
Sancta Trinitas unus Deus,
Sancta Maria,
Sancta Dei génitrix,
Sancta Virgo Virginum,
Mater Christi.
Mater Divinæ gratiæ,
Mater purissima,
Mater castissima,
Mater inviolata,
Mater intemerata,
Mater immaculata,
Mater amábilis,
Mater admirábilis,
Mater Boni Consilii,
Mater Creatoris,
Mater Salvatoris,
Virgo prudentíssima,
Virgo veneranda,
Virgo prædicanda,
Virgo potens,

Virgo clemens,
Virgo fidelis,
Speculum justitiæ,
Sedes Sapientiæ,
Causa nostræ
lætitiæ,
Vas spirituale,
Vas honorábile,
Vas insigne devotionis,
Rosa mystica,
Turris Davidica,
Turris ebúrnea,
Domus aúrea,
Fœderis arca,
Janua Cœli,
Stella matutina,
Salus infirmorum,
Refugium peccatorum,
Consolatrix afflictorum,
Auxilium christianorum,
Regina Angelorum,
Regina Patriarcharum,

Regina Prophetarum,
Regina Apostolorum,
Regina Mártyrum,
Regina Confessorum,
Regina Virginum,
Regina Sanctorum omnium,
Regina sine labe originali concepta.
Regina sacratissimi Rosarii.
Regina pacis.

V. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi,
R. *Parce nobis, Domine.*
V. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.
R. *Exaudi nos, Domine.*
V. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.
R. *Miserere nobis.*
V. Ora pro nobis sancta Dei génitrix.
R. Ut digni efficiamur promissiónibus Christi.

OREMUS.

Gratiam tuam quæsumus, Dómine, méntibus nostris infunde, ut qui, Angelo nuntiante, Cristi Filii tui Incarnationem

cognóvimus, per Passionen ejus et Crucem ad Resurrectionis gloriam perducamur. Per eumdem Christum Dóminum nostrum. Amen.

---

*Erromaco Misaloren araura meza esaten duten apaizai laguntzeco era:*

Apaizac. In nómine Patris, et Filii, Spiritus Sancti. Amen. Introibo ad Altare Dei.

Laguntzalleac. Ad Deum qui laetificat juventutem meam

Ap. Júdica me, Deus, et di cerne causam meam de gente non sancta, ab homine iniquo et doloso erue me.

Lag. Quia tu es, Deus, fortitudo mea, quare me repulisti? et quare tristis incedo, dum affligit me inimicus?

Ap. Emitte lucem tuam et veritatem tuam, ipsa me deduxerunt, et adduxerunt in montem sanctum tuum et in

Lag. Et introibo ad altare Dei ad

tabernacula tua.

Deum qui lætificat juventutem meam.

Ap. Confitebor tibi in cithara, Deus, Deus meus, quare tristis es anima mea, et quare conturbas me?

Lag. Spera in Deo, quoniam adhuc confitebor illi, salutare vultus mei et Deus meus.

Ap. Gloria Patri, et Filio, et Spiritui sancto.

Lag. Sicut erat in principio, et nunc et semper, et in sæcula sæculorum. Amen.

Ap. Introibo ad Altare Dei.

Lag. Ad Deum qui lætificat juventutem meam.

Ap. Adjutorium nostrum in nómine Domini.

Lag. Qui fecit cœlum et terram.

Ap. Confiteor Deo omnipotenti etc et vos fratres orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

Lag. Misereatur tui omnipotens Deus, et dimissis peccatis tuis, perducat te ad vitam æternam.

Ap. Amen.

Lag. Confiteor Deo omnipotenti, Beatæ Mariæ semper Virgini, Beato Michæli Archangelo, Beato Joanni Baptistæ, sanctis Apostolis Petro et Paulo, omnibus Sanctis et tibi, pater, quia peccavi nimis cogitatione, verbo, et opere, mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa. Ideo precor beatam Mariam semper Virginem, beatum Michælem Archangelum, beatum Joannem Baptistam, sanctos Apostoles Petrum et Paulum, omnes Sanctos, et te, Pater, orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

Ap. Misereatur vestri omnipotens Deus, et dimissis peccatis vestris, perducat vos ad vitam æternam.

Lag. Amen.

Ap. Indulgentiam, absolutionem et

remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis omnipotens, et misericors Dominus.

Lag. Amen.

Ap. Deus, tu conversus vivificabis nos,

Lag. Et plebs tua lætabitur in te.

Ap. Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam,

Lag. Et salutare tuum da nobis.

Ap. Domine, exaudi orationem meam.

Lag. Et clamor meus ad te veniat.

Ap. Dominus vobiscum .

Lag. Et cum spiritu tuo.

Ap. Kyrie eleyson.

Lag. Kyrie eleyson.

Ap. Kyrie eleyson.

Lag. Christe eleyson.

Ap. Christe eleyson.

Lag. Christe eleyson.

Ap. Kyrie eleyson.

Lag. Kyrie eleyson.

Ap. Kyrie eleyson.

Ap. Dominus vobiscum.

Lag. Et cum spiritu tuo.

Ap. Per omnia sæcula sæculorum.

Lag. Amen.

EPISTOLAREN ONDOREN.

Lag. Deo gratias.

Ap. Dominus vobiscum.

Lag. Et cum spiritu tuo.

Ap. Sequentia Sancti Evangelii secundum, etc.

Lag. Gloria tibi, Domine.

LENBIZICO EVANGELIOAREN ONDOREN

Lag. Laus tibi, Christe.

Ap. Orate fratres.

Lag. Suscipiat Dóminus sacrificium de mánibus tuis ad laudem et gloriam nóminis sui, ad utilitatem quoque nostram, totiusque Ecclesiæ suæ santæ

Ap. Amen

PREFACIOAN

Ap. Per omnia sæcula sæculorum.

Lag. Amen.

Ap. Dóminus vobiscum.

Lag. Et cum spiritu tuo.

Ap. Sursum corda.

Lag. Habemus ad Dóminum.

Ap. Gratias agamus Dómino Deo nostro.

Lag. Dignum et justum est.

PATER NOSTER-AREN ONDOREN

Ap. Et ne nos inducas in tentationem.

Lag. Sed libera nos a malo.

Ap. Pax Domini sit semper vobiscum.

Lag. Et cum spiritu tuo.

Ap. Ite, Missa est "edo" Benedicamus Domino.

Lag. Deo gratias.

Ap. Requiescant in pace.

Lag. Amen.

Ap. Benedicat vos omnipotens Deus, Pater, et Filius, et Spiritus Sanctus.

Lag. Amen.

Ap. Dominus vobiscum.

Lag. Et cum Spiritu tuo.

Ap. Sequentia sancti Evangelii secundum etc.

Lag. Gloria tibi, Domine.

AZQUENECO EVANGELIOAREN ONDOREN

Lag. Deo gratias.

LAUS DEO



A
18